

Eskafandra pentsamendu feminista bilduma abiatu genuenean, gogoan dut inork esan zigula zentzurik ba ote zuen dagoeneko erdaretan geneukana euskaratzea, gainera, testu filosofikoak izanda, eta kontuan hartuta testu konplexuak direla, are, erdaretan oro har errazago egiten zaigunean ulertzea. Alegia, ba ote dagoen inor Judith Butler bat, demagun, euskaraz irakurtzeko gai. Galdera bere erroan –eta harroan, agian– da zentzugabea; edo, bestela esan, *statu quo* injustu baten indargarri da, edo euskarak eta feminismoak hainbesteko lanik ez dutela merezi pentsatzen dela, are gutxiago biak batera. Trena iritsiko bada, trenbidea eraiki behar dela esan genuen –Emir Kusturicaren *Bizitza mirakulua* da filmean bezala–, eta iritsiko zela abagunea eta iritsiko zela belau-naldia pentsamendu feminista euskaraz erdaretan baino aiseago irakurriko zuena. Eta iritsi da edo iritsarazi da.

Eta iritsi da Simone de Beauvoir eta Hanna Arendt hezkuntza curriculumean sartuko diren eguna; iritsi da trena, eta euskaratuak ditugu, trenbidea aurrez jarri delako. Bestelakoan, trenak espainolez edo frantsesez iristen jarraituko luke. Alegia, Hego Euskal Herrian, lehen aldiz, bi filosofo emakumezko Unibertsitatara Sartzeko Ebaluazioa (USE) azterketan derrigorrezkoak izango dira. Aldaketa, zehazki, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan aplikatuko da; Nafarroan ez dago horrelakorik oraindik; eta Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, berriz, irakas sistema desberdina da, hau da, autoreka baino gaika lantzen da filosofia, eta ez dago idatzita zein filosofo irakatsi behar diren –‘idatzi gabeko curriculumak’ zer dioen ez dakigu–. Beraz, trenbidea prest zegoen, eta trena iritsi da, eta horrekin (ere) euskara eta pentsamendua (ere) batera joateak zentzu beteketa bideak eta bidaiak irekitzen dituela argi geratu da.

Bada zerbait Beauvoir eta Arendt ikasgeletara sartzea. Bada zerbait, izan ere, unibertsal gisa aurkeztu zaigun gizonezkoen filosofiak komunitate erdia isiltasunera kondenatu baitu. Emakume filosofoak egon egon dira, eta egon badaude, kostata, baina badaude. Zergatik ezkutuan utzi? Euskal pentsamenduan ere egon dira eta badaude, eta pentsamendu feministak Euskal Herrian izandako ekarpena nabarmendu eta indartzeko kontua da. Argi

geratu zen curriculum berdinzaleagorako lehen urrats honen hari-
ra Agora Filosofia Elkartek eta EHUko Filosofia eta Antropologia
Fakultateak joan den udan elkarrekin antolatutako *Filosofiatik eza-
batutako emakumeak* UEUko ikastaroan. Orduko hitzaldi eta ma-
hai-inguruetako mamia duzu zenbaki honetan, benetan aberatsa
eta bide egilea, eraldatzailea eta galdera egokiak jartzen dizkiguna
begien aurrean. Zenbakiaren bigarren zatian, aldiz, Beauvoir eta
Arendt ikasgai gisa garatzeko irakasle eta ikasleentzat lagungarri
izango den materiala bildu dugu, JAKIN aldizkariak beste elkarbide
bat irekitzeko bokazioz.